# HOSPITALIDAD DIVERSIDAD ELKARBIZITZA

Leer estas tres palabras te llevará dos minutos.
Para entenderlas:
dos mil veinte.

# LOIOLAETXEA

La magia aparece cuando nos damos cuenta

de que *Loiolaetxea está compuesta y desarrollada*

*por tal conjunción de astros, que eso la hace infinita.*

# 2020

# ÍNDICE


1. Entidad o institución bajo la que se desarrolla la intervención……………………………. 1

2. Áreas de trabajo……………………………………………………………………........................... 3

3. Objetivos específicos del ámbito concreto………………………………………………………. 5

4. Misión. Visión. Valores………………………………………………………………………………. 6

5. Modelo de intervención interdisciplinar y Gestión del ámbito concreto……………………………………………………………………….. 7

6. Perfil de las personas. Resultados conseguidos………………………………………………... 9

7. Nivel de satisfacción de las personas atendidas o acompañadas………………………. 12

8. Fuentes de financiación de Loiolaetxea……………………………………………………………. 13




Tejer puentes

# 1.- ENTIDAD O INSTITUCIÓN BAJO LA QUE SE DESARROLLA LA INTERVENCIÓN

La Asociación Loiolaetxea para la Integración Social nace en septiembre del año 2000, impulsada por la Compañía de Jesús, con un programa residencial y de acompañamiento para personas en situaciones de exclusión social o en riesgo de padecerla y preferentemente con experiencia penitenciaria.

En mayo de 2003 Loiolaetxea se consolida como Asociación y en el año 2004 la Diputación Foral de Gipuzkoa subvenciona alguno de los servicios que realiza. En el 2006 se firma un convenio de colaboración con la Diputación Foral de Gipuzkoa para financiar una parte de la atención residencial del Proyecto. En el año 2014 el convenio firmado con la Diputación Foral de Gipuzkoa (de 18 plazas residenciales) se amplía a la financiación de plazas (quince como máximo) del Programa de Acompañamiento Especializado (no residencial). Siendo ésta la foto actual.

Desde sus inicios la Asociación ha trabajado dentro del Centro Penitenciario de Martutene con un programa propio de diagnóstico, orientación y acompañamiento personalizado, tanto individual como grupal. Lo hace de forma coordinada con el equipo de trabajo de Servicios Sociales de la prisión, así como con otras organizaciones vinculadas a la misma, formando parte de ESEN (Espetxe Sarea Euskadi-Nafarroa). Además, existe una relación estable entre la Asociación y los Departamentos de Servicios Sociales de otras prisiones del Estado como, por ejemplo, Zaballa en Araba, Daroca en Zaragoza, Dueñas en Palencia o Santoña en Cantabria.

Loiolaetxea forma parte de las instituciones del Sector Social y en la Plataforma Apostólica Loyola de la Compañía de Jesús, uno de cuyos objetivos principales es el acompañamiento a personas y grupos en situaciones de vulnerabilidad.

Por otra parte, la propia misión del Proyecto de Loiolaetxea, que abarca los ámbitos personal, comunitario y de ciudadanía, ha creado y mantiene un espacio de convivencia donde jesuitas, laicas y laicos, familias, comunidades y personas que se encuentran en situaciones desfavorecidas hacen vida en común, y fomentan un compromiso social de justicia y participación cívica.

La sede de Loiolaetxea en Ategorrieta 34 – Donostia, funciona como una Comunidad de Vida formada por cinco personas que residen permanentemente en la casa, un grupo de 33 voluntarias/voluntarios y 8 trabajadoras/trabajadores, que en algunos casos forman parte de varios departamentos a la vez (figura 1).



En continuo movimiento

Figura 1: Organigrama de la Entidad




Fuente: Programa Integral de Loiolaetxea 2016

## 2.- ÁREAS DE TRABAJO

El trabajo se aglutina en torno a seis proyectos; 4 centrales y 2 transversales (figura 2). Todos ellos se encuentran recogidos dentro del Marco legal de la Cartera de Servicios de la Ley 12/2008 de Servicios Sociales del País Vasco:

**Proyecto de diagnóstico-orientación.**
Centros Penitenciarios para promover la inserción postpenitenciaria
**Proyecto residencial.**
Casa en Calzada Vieja de Ategorrieta, Gros
**Proyecto de transición residencial hacia la vida autónoma.**
Pisos en el barrio Altza
**Proyecto de acompañamiento especializado no residencial.**
Intervención socioeducativa
**Proyecto de participación y voluntariado.**
Formación y actividades bajo el estilo de ser una escuela de ciudadanía.
**Proyecto de Hospitalidad.**
Intervención socio-educativa y facilitación de pisos en diversos barrios que fortalecen los procesos**.**

Figura 2: Programas




Fuente: Programa Loiolaetxea



Común – Unión

Todos los programas se desarrollan bajo las **Líneas Estratégicas** (figura 3) de la Asociación que se recogen en el Modelo de atención del Programa integral de Loiolaetxea, pretendiendo en todo momento **Acompañar**, **Servir** y **Defender** las causas justas de las personas que se encuentran en una situación de vulnerabilidad y Exclusión Social.

Figura 3: Líneas Estratégicas de Loiolaetxea




Fuente: Programa integral de Loiolaetxea 2016

## 3.- OBJETIVOS

El objetivo general del Programa Integral de Loiolaetxea bajo el que se despliegan los seis proyectos descritos anteriormente es:

**Mejorar la calidad de vida de las personas que se encuentran en una situación de vulnerabilidad o en exclusión social mediante la consolidación del proceso de Calidad de Vida, Acceso a Derechos y/o Servicios fomentando en todo momento la Autodeterminación de la persona.**

Los objetivos específicos que cuelgan de las líneas estrategicas descritas en el punto anterior y de su finalidad son:

- OE.1. Promover, animar y evaluar procesos de autonomía mediante la herramienta del acompañamiento técnico.
- OE.2. Promover, animar y evaluar hábitos de vida inclusivos a través de la convivencia residencial.
- OE.3. Promover, animar y evaluar experiencias de vinculación comunitaria a través de la participación en grupos de apoyo entre iguales u otros de la red social.
- OE.4. Promover, animar y evaluar experiencias de visibilización y de cambio social a través de la participación ciudadana y de incidencia pública.



Pelear juntos la vida

## 4.- MISIÓN, VISIÓN y VALORES

**MISIÓN**

Ser una experiencia social jesuita para la inclusión -transparente y participativa- basada en la vinculación comunitaria que promueve el acompañamiento y desarrollo de las personas participantes hacia su autodeterminación. Entendemos nuestra misión en clave de transformación social como nuestro mejor aporte hacia una sociedad más justa e inclusiva.

Desarrollamos programas de acompañamiento residencial y referencial en el ámbito de la experiencia post-penitenciaria, así como otros de fomento de la participación social y de la acción voluntaria. Formamos parte de la red de incidencia social jesuita de Euskadi y España.

Transformación Social
Vinculación Comunitaria
Acceso a derechos

**VISIÓN**

La inclusión y el acceso a derechos de las personas excluidas en Gipuzkoa -especialmente aquellas con experiencia penitenciaria- a través de una red de solidaridad, que genera buenas prácticas en el territorio.

Ser parte de una red de solidaridad en Gipuzkoa que impulsa el acceso a derechos y la inclusión de personas excluidas, especialmente aquellas con experiencia penitenciaria.
Ser reconocidas por aportar a este trabajo un modelo de intervención comunitaria alternativo y sostenible.

**VALORES**

Consolidar y mejorar si cabe nuestro modelo de fraternidad humana, en la que todas las personas se consideran miembros de un colectivo en el que arraigarse y crecer. Con Procesos de incorporación a la comunidad de vida: voluntariado, difusión del proyecto, etc. Reconociendo la identidad cultural y lingüística, en especial la lengua y cultura vasca. Con Procesos de acompañamiento: visitas carcelarias y acogidas en la casa. Con Proyectos de vida. Con Procesos de trabajo en la casa: reparto de tareas y responsabilidades, convivencia, participación de voluntarios, etc.

Fomentar la integración social de las personas con experiencia penitenciaria o en exclusión social en su proceso hacia una vida autónoma. A través de Acompañamiento a las personas en la transición tras su paso por Loiolaetxea. Pisos de transición. Impulsando proyectos alternativos de acogida y mediación que impliquen al tejido social de Donostia.

Impulsar alternativas al modelo penitenciario actual. Participando en redes que denuncian las injusticias del sistema penitenciario. Y Participando en redes y plataformas que proponen modelos alternativos.

Trabajar con otros para fomentar una red de solidaridad. Definiendo áreas en las que queremos trabajar con otros. Estableciendo acuerdos, alianzas o participación en redes. Y clarificando la participación de Loiolaetxea en redes y plataformas

## 5.- MODELO DE INTERVENCIÓN COMUNITARIO E INTERDISCIPLINAR Y GESTIÓN DEL ÁMBITO CONCRETO

El Modelo de Intervención profesional nace y se despliega 4 años después del origen de Loiolaetxea con su Modelo Comunitario. Por lo que desde esos orígenes hasta la actualidad el recorrido ha sido largo, hasta crear y recoger por escrito aquello que hacemos y ser alineado con el Modelo de Atención y formar parte de la Cartera de los Servicios Sociales de la CAPV, sin que haya perdido su esencia primitiva de ser una Comunidad.

El Marco Legislativo bajo el que se encuentra Loiolaetxea en el Decreto de Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales es La Ley 12/2008. *Artículo 33.- Servicios de alojamiento/Vivienda tutelada para personas en riesgo de exclusión (1.9.2)*

Los retos del Modelo de Intervención Comunitaria de Loiolaetxea son:

- Dar y recibir.
- Tejer cauces de diversidad e interculturalidad.
- Apoyarnos y crecer juntos bajo la mirada de la horizontalidad.
- Incidir compartiendo la vida desde la diversidad.
- Disfrutar y aprender de lo dulce y de lo amargo de la mesa compartida.



Encuentro y Diversidad

Figura 4: Modelo de Intervención Comunitaria




Fuente: Programa Integral de Loiolaetxea 2016

Figura 5: Síntesis del Modelo de Gestión e Intervención Profesional de Loiolaetxea

<table>
<tr><th rowspan="6">DIRECCIÓN</th><th rowspan="6">ELKARTEA</th><th rowspan="6">COORDINACIÓN</th><th>CENTRO RESIDENCIAL<br>ATEGORRIETA</th><th>PISOS<br>ALTZA</th><th>PAE<br>LAES</th><th>ACOGIDA<br>HOSPITALIDAD</th><th>DIAGNÓSTICO ORIENTACIÓN<br>EN CP</th></tr>
<tr><td>TÉCNICO REFERENTE EDUCATIVO</td><td>TÉCNICO REFERENTE EDUCATIVO</td><td>TÉCNICO REFERENTE EDUCATIVO</td><td>TÉCNICO REFERENTE EDUCATIVO</td><td rowspan="5">EDUCATIVO<br>EXPEDIENTE SOCIAL<br>TÉCNICO TERAPEUTICO PSICOSANITARIO</td></tr>
<tr><td>TÉCNICO EXPEDIENTE SOCIAL</td><td>TÉCNICO EXPEDIENTE SOCIAL</td><td>TÉCNICO EXPEDIENTE SOCIAL</td><td>TÉCNICO EXPEDIENTE SOCIAL</td></tr>
<tr><td colspan="4">TÉCNICO TERAPEÚTICO PSICO-SANITARIO</td></tr>
<tr><td colspan="4">TÉCNICO PARTICIPACIÓN</td></tr>
<tr><td colspan="4">TÉCNICO AUXILIAR</td></tr>
</table>

Fuente: Programa Integral de Loiolaetxea 2016

En las dos figuras 4 y 5, se puede apreciar cómo se combina el Modelo de Intervención Comunitario con el Modelo de Intervención Profesional Interdisciplinar. Ambos modelos son transversales en todos los proyectos de Loiolaetxea. Y la combinación de estos dos modelos facilita que las personas que son acompañadas puedan crecer en las dimensiones de inserción social y comunitaria fortaleciendo así el proceso de crecimiento personal.

A la vez, a los/as profesionales y voluntariado que forman parte del Modelo Comunitario les posibilita también poder crecer a nivel personal y humana.

Y como gran aportación de esta combinación, desde el plano experiencial, se puede afirmar que las personas que son acompañadas y las que acompañan llegan a establecer un vínculo profundo que les permite sentir y situarse de este modo en un plano de la horizontalidad, como el Magis[1] que persigue la finalidad de Loiolaetxea: "Ser causa justa".

## 6.- PERFIL DE LAS PERSONAS. RESULTADOS CONSEGUIDOS.

Los perfiles de las personas acompañadas o atendidas a lo largo de los 21 años de vida de Loiolaetxea, como se viene señalando en este documento, son aquellas que se encuentran en situación de exclusión social o en riesgo de padecerla y preferentemente con experiencia penitenciaria.

La edad de las personas está comprendida entre los 18 a los 64 años y la atención es diversa y mixta a todos los niveles; género, procedencia, edad, etc.

Figura 6: Datos generales de los últimos siete años

| | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| PERSONAS ATENDIDAS | 85 | 87 | 60 | 80 | 77 | 76 | 75 |
| MUJERES | 15 | 21 | 11 | 13 | 9 | 9 | 14 |
| HOMBRES | 70 | 66 | 49 | 67 | 68 | 65 | 61 |
| PROCEDENCIAS | 60% Autóctonas y 40% migrante con diversidad de procedencia | | | | | | |
| VISIÓN DE RESULTADOS GENERALES | La proporcionalidad que se ha podido apreciar a lo largo de estos años es de que 2 de cada 3 personas no vuelve a prisión y no recae en cometer nuevos delitos o en un consumo de drogas que le impida llevar adelante su proyecto de vida | | | | | | |

Fuente: Elaboración Propia

[1] Magis: es una palabra muy típica latina de la espiritualidad ignaciana, que significa "más". Pero "más en qué… Pues en todo aquello que tiene que ver con nuestra relación con Dios y con aquellas decisiones personales que en un momento u otro de la vida tengamos que tomar. Encierra, por tanto, no un "más" de cantidad sino de calidad.

Desde una lectura y descripción específica de los datos de la memoria del 2020 desplegados en los gráficos que se presentan a continuación. Loiolaetxea nace y se mantiene en el tiempo con una clara vocación de cercanía a aquellas personas que, dentro del entorno penitenciario, no tengan redes sociales de apoyo, o las mismas se encuentren en situación precaria, dentro del entorno territorial de Gipuzkoa, y por extensión, del resto de los territorios de Euskadi de una forma preferencial.










El fenómeno de las migraciones, especialmente extracomunitarias y con principal foco en el norte de África y África Subsahariana, marcan un cambio de rumbo en la atención a la hospitalidad que permita el acceso a los servicios y derechos de la red de los Servicios Sociales.

ºSe puede afirmar que la distribución por género en el espacio de Loiolaetxea es bastante desigual. Y que un siguiente elemento a tener en cuenta en lo que consideramos construye a Loiolaetxea como un espacio plural y diverso, es el propio lugar de origen de las personas que componen dicho espacio



Algunos otros datos que ayudan a caracterizar la realidad diversa y plural de las personas que comparten el espacio de Loiolaetxea, tiene mucho que ver con las condiciones personales o itinerarios de vida y la consecución de los objetivos perseguidos.

La realidad económica, las circunstancias particulares que dificultan la integración social o provocan el rechazo social violento de la que parten muchas de las personas en Loiolaetxea, van a condicionar de forma significativa el propio proceso de inclusión y normalización de sus vidas.












Por último, nos queda señalar una cierta prospectiva del proceso de las personas en el espacio de Loiolaetxea. Con los datos a los que tenemos acceso, y tal y como se refleja en el gráfico, en relación a la consecución de los objetivos perseguidos, la tendencia del dato predominante es que el 99% de las personas de las que tenemos datos corroborados, han mantenido parcial o satisfactoriamente una dinámica de normalización de sus procesos vitales en los dos años siguientes tras haber experimentado riesgo o situación grave de exclusión social.




## 7.- NIVEL DE SATISFACCIÓN DE LAS PERSONAS ATENDIDAS O ACOMPAÑADAS

La visión amplia que sustentan los datos de los gráficos de la última encuesta de satisfacción llevada a cabo en el 2020 y la experiencia general de las personas que son acompañadas es buena y sienten Loiolaetxea como su casa. Esto, como dato positivo, pone en conflicto los procesos de vinculación y de desvinculación de los procesos educativos. Estas dinámicas de riesgo, Loiolaetxea las asume siempre y cuando sea a favor de los procesos de las personas y sus itinerarios de vida.

| VALORACIONES DE LAS PERSONAS USUARIAS | Mujeres | Hombres | TOTAL |
|---|---|---|---|
| Indice Satisfacción Global (ISG) | 8.9 | 9.3 | 9.1 |
| Valoración instalaciones e infraestructura física | 8.6 | 9.4 | 9.0 |
| Valoración profesionalidad personas que les atienden | 9.4 | 9.0 | 9.2 |
| Valoración trato que reciben | 9.3 | 9.4 | 9.3 |
| Valoración sistema de quejas y sugerencias | 8.3 | 7.5. | 7.9 |
| Valoración de sus derechos[1]: | | | |
| *Respeto y dignidad* | 9.5 | 9.3 | 9.4 |
| *Privacidad e intimidad* | 8.8 | 8.5 | 8.6 |
| *Autodeterminación y autonomía* | | | |
| *Información que reciben* | 9.1 | 8.7 | 8.9 |
| *Capacidad de elección* | 9.0 | 9.0 | 9.0 |
| *Realización personal* | 8.9 | 9.5 | 9.2 |
| *Protección, conocimiento y defensa de sus derechos* | 9.5 | 9.4 | 9.4 |




## 8.- FUENTES DE FINANCIACIÓN DE LOIOLAETXEA

- La Compañía de Jesús desde la fundación de Loiolaetxea en el año 2000 aporta los recursos propios que son los centros residenciales, capital humano y diferentes fórmulas de recursos materiales y económicos que promueve la sostenibilidad de Loiolaetxea.

- El Convenio con la Diputación Foral de Gipuzkoa firmado por primera vez en Donostia-San Sebastián, a día 12 de Julio de 2006. Actualmente lo mantiene con el Servicio de Protección a la Mujer Víctima de Violencia Machista y de Inclusión Social del Departamento de políticas Sociales. Tiene una vigencia anual, y desde el inicio se ha renovación todos los años hasta hoy.

- El Gobierno Vasco con Subvenciones a actividades del tercer sector en el ámbito de intervención social en el País Vasco. Estas subvenciones son de carácter anual. A través de Proyectos subvencionados desde dos de las tres líneas que tiene hoy el GV:

  - I: Fortalecimiento de la acción voluntaria y la participación asociativa de la intervención.
  - II: Actividades de intervención social con personas, familias, grupos y comunidades.

- Otras subvenciones puntuales para la promoción de proyectos locales concretos.

- Estas fuentes de financiación vienen descritas en las cuentas analíticas de Ingresos y Gastos de la memoria 2020 que se pueden apreciar en las figuras 7 y 8.

## CUENTA ANALÍTICA DE INGRESOS - EJERCICIO: 2020

| | | |
|---|---|---|
| **Diru sarreren Kontua / Cuenta de Ingresos**<br>**Urteko zenbatekoa / Importe anual** | | |
| **Erabiltzaileak eta familiak / Personas usuarias y familias** | | **0,00** |
| **Erakundeak / Instituciones** | | **368.868,49** |
| GFA - Gizarte Politiketako Dep. / DFG - Dep. de Políticas Sociales | | 355.295,79 |
| Zerbitzuak ematea / Prestación de servicios | | 312.060,79 |
| Ustiapeneko diru laguntzak / Subvenciones de explotación | | 43.235,00 |
| Kapitaleko diru laguntzak / Subvenciones de capital | | 0,00 |
| GFA - Beste departamentuak / DFG - Otros Departamentos | | 0,00 |
| Eusko Jaurlaritza - Osakidetza / Gobierno Vasco - Sanidad | | 0,00 |
| EJ Osabidezko Hezk. Partz. / GV - Consorcio de Educación Compensatoria | | 0,00 |
| EJ - Justizia, Lan eta Giz.Seg. / GV - Justicia, Trabajo y SS | | 0,00 |
| EJ - Etxebizitzak eta Gizarte Gaiak / GV - Vivienda y Asuntos Sociales | | 0,00 |
| Eusko Jaurlaritza - bestelakoak / Gobierno Vasco - Otros | | 13.572,70 |
| Udalak / Ayuntamientos | | 0,00 |
| Beste erakundeak / Otras instituciones | | 0,00 |
| **Bestelako diru sarrerak / Otros ingresos** | | **122.710,00** |
| Donatiboak / Donativos | | 0,00 |
| Bestelako diru sarrerak / Otros ingresos (especificar): | | 0,00 |
| APORTACION COMUNIDAD JESUITAS | | 18.000,00 |
| APORTACION JESUITAS | | 84.223,00 |
| DONATIVOS | | 13.497,00 |
| DONACIONES Y LEGADOS DE CAPITAL | | 6.990,00 |
| **Intereses y otros ing. fin. / Int. eta bestelako diru sarrera finantzarioak** | | **127,23** |
| **Guztira / Total** | | **491.705,72** |
| Importes | Con IVA | |
| | Sin IVA | X |

Figura 7: ingresos 2020 Fuente: Elaboración memoria 2020 de Loiolaetxea



Participación activa e inclusiva

**CUENTA ANALÍTICA DE GASTOS GASTUEN KONTU ANALITIKOA - EJERCICIO: 2020**

| | |
|---|---|
| **Zuzeneko gastuak / Gastos directos** | **56.670,85** |
| Botikak / Fármacos (únicamente el coste soportado por la entidad) | 2.692,24 |
| Osasun-materiala / Material sanitario (únicamente el coste soportado por la entidad) | 0,00 |
| Elikadura / Alimentación | 48.571,87 |
| Jangaiak eta edariak / Comestibles y bebidas | 34.714,96 |
| Sukaldeko pertsonal propioa / Personal propio de cocina | 13.856,91 |
| Sukaldeko pertsonal azpikontratatua / Personal subcontratado de cocina | 0,00 |
| Catering zerbitzua / Servicio de Catering | 0,00 |
| Ikuztegia / Lavandería | 0,00 |
| Ikuztegiko pertsonal propioa / Personal propio de lavandería | 0,00 |
| Ikuztegiko pertsonal azpikontratatua / Personal subcontratado de lavandería | 0,00 |
| Ikuztegi gaiak / Productos de lavandería | 0,00 |
| Kanpoko ikuztegia / Lavandería exterior | 0,00 |
| Garraioa / Transporte | 5.406,74 |
| Garraio pertsonal propioa / Personal propio de transporte | 0,00 |
| Garraio pertsonal azpikontratatua / Personal subcontratado de transporte | 0,00 |
| Erregaiak, konponketak, aseguruak... / Combustible, reparaciones, seguros... | 5.406,74 |
| Garraio azpikontrata Udalak subkontratatua / Subcontrata de transporte subcontratado por el Ayuntamiento | 0,00 |
| Garraio azpikontrata kudeaketa enpresak subkontratatua / Subcontrata de transporte subcontratado por la empresa gestora | 0,00 |
| **Pertsonal gastuak / Gastos de Personal** | **318.616,38** |
| Kudeaketako pertsonal propioa / Personal propio de Gestión | 0,00 |
| Kudeaketako pertsonal azpikontratatua / Personal subcontratado de Gestión | 0,00 |
| Asistentziako Pertsonala propioa / Personal Asistencial Propio | 318.616,38 |
| Asistentziako Pertsonal azpikontratatua / Personal Asistencial Subcontratado | 0,00 |
| Ez asistentziazko Pertsonala propioa / Personal No asistencial Propio | 0,00 |
| Ez asistentziazko Pertsonal azpikontratatua / Personal No asistencial Subcontratado | 0,00 |
| **Zeharkako gastuak / Gastos indirectos** | **99.476,52** |
| Garbiketa pertsonal propioa / Personal propio de limpieza | 0,00 |
| Garbiketa pertsonal azpikontratatua / Personal subcontratado de limpieza | 0,00 |
| Garbiketa gaiak / Productos de limpieza | 1.062,00 |
| Hornizioak / Suministros | 13.084,43 |
| Alokairuak / Arrendamientos | 7.218,62 |
| Konponketak eta mantentze-lanak / Reparaciones y mantenimiento | 14.503,76 |
| Aseguru primak / Primas de seguros | 794,08 |
| Komunikazioak / Comunicaciones | 8.535,65 |
| Bulego materiala / Material de oficina | 4.147,17 |
| Finantza gastuak / Gastos financieros | 864,45 |
| Bestelako gastuak (amortizazioak salbu) / Otros gastos (salvo amortizaciones) | 49.266,36 |
| **GUZTIRA / TOTAL** | **474.763,75** |
| Amortizazioetarako zuzkidurak / Dotaciones para amortizaciones | 9.538,60 |
| Ekitaldiko emaitzari esleitutako kapital diru-laguntzak / Subvenciones de capital traspasadas al resultado del ejercicio | 6.990,00 |

Figura 8: Gastos memoria 2020 Fuente: Elaboración memoria 2020 de Loiolaetxea

Los números nos permiten otorgarle un valor a todo lo que se ha ido recogiendo a lo largo de este documento. Nos posibilitan revisar lo que hacemos, cómo lo hacemos y desde dónde lo hacemos.

En estas dos figuras 7 y 8, donde se recogen los ingresos y los gastos de la última memoria de Loiolaetxea. Procuran ser un reflejo de la actividad que se realiza. De la distribución del presupuesto anual y del reconocimiento en todo momento de lo importante… LAS PERSONAS que pelean la vida y que en momentos frágiles necesitan que se les mire con cariño y sientan que tienen una nueva oportunidad de reconducir sus procesos vitales.

Por y para ellas están pensados los presupuestos, que se desarrollan en estas cuentas analíticas de ingresos y gastos presentados aquí.

Como reflexión final… Los números y el modo de distribuirlos, nos hace estar más o menos cerca de la mirada del bien común.

A pesar de que, en el ámbito social, la tesorería no suele ser muy holgada, estas limitaciones suponen hacer ajustes y tomar decisiones complejas. Reconforta cuando los procesos personales y comunitarios avanzan y estos números se convierten en vida.

Vida que permite encaminar procesos vitales individuales, y que de este modo nos fortalecen como comunidad, como ciudadanía y como sociedad.

*Seguimos Peleando la vida y tejiendo Solidaridad*


ESKERRIK
ASKO



Bi hitz hauek irakurtzeko bi minutu beharko dituzu.
Ulertzeko:
2020

# LOIOLAETXEA

*Loiolaetxea halako astro-konjuntzio batez osatuta eta garatuta dago, horrek sekulako bihurtzen baitu;* hain zuzen, horretaz jabetzen garenean agertzen da magia.

# 2020

## AURKIBIDEA


1. Esku-hartzearen entitate edo erakunde arduraduna ……………………..……………… 1

2. Lan-esparruak ……………………………………………………………………….…………………. 3

3. Helburuak …………………………………………..……………………………………………. 5

4. Misioa, ikuspegia eta balioak …………………………….…………………………………… 6

5. Esku-hartze komunitarioko eredua eta diziplinarteko eredua, eta dagokion esparruaren kudeaketa ……………………………………………………….. 7

6. Pertsonen profila. Lortutako emaitzak ……………………….……………………………… 9

7. Artatutako edo lagundutako pertsonen gogobetetze-maila ….………………………… 12

8. Loiolaetxearen finantzaketa-iturriak ……………………………………………………………… 13




Zubiak eraikitzea

# 1.- ESKU-HARTZEAREN ENTITATE EDO ERAKUNDE ARDURADUNA

Loiolaetxea Gizarteratzeko Elkartea 2000. urteko irailean sortu zen, Jesusen Lagundiak bultzatuta, gizarte-bazterketako egoeran edo egoera hori bizitzeko arriskuan dauden pertsonentzako −espetxean egondakoentzako, batez ere− egoitza- eta laguntza-programa bat lantzeko.

2003ko maiatzean, Loiolaetxea elkarte moduan sendotu zen, eta 2004. urtean, Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundu zituen Elkartearen zenbait zerbitzu. 2006an, lankidetza-hitzarmen bat sinatu zen Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, proiektuko egoitza-arretaren zati bat finantzatzeko. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin sinatutako hitzarmena (18 egoitza-plazakoa) zabaldu egin zen 2014. urtean, Laguntza Espezializatuko Programako plazak (ez-egoitzakoak) finantzatzeko (gehienez ere, hamabost). Beraz, hauxe da egungo egoera.

Hasiera-hasieratik, Elkarteak Martuteneko espetxean egin du lan, diagnosi-, orientazio- eta laguntza-programa pertsonalizatu baten bitartez (banakakoa nahiz taldekoa). Espetxeko gizarte-zerbitzuko lan-taldearekin koordinatuta egiten da lan, bai eta hari lotutako beste elkarte batzuekin ere; hala, ESEN Espetxe Sarea Euskadi-Nafarroa sareko kide da Elkartea. Horrez gain, harreman egonkorra da Elkartearen eta Estatuko beste espetxeetako gizarte-zerbitzuetako departamentuen artean, hala nola Zaballakoa (Araba), Darocakoa (Zaragoza), Dueñasekoa (Palentzia) edo Santoñakoa (Kantabria).

Loiolaetxea gizarte-esparruko erakundeen eta Jesusen Lagundiko Loiolako Plataforma Apostolikoaren parte da, eta, hain zuzen, bere helburu nagusietako bat kalteberatasun-egoeran dauden pertsonei eta taldeei laguntzea da.

Bestalde, Loiolaetxea proiektuaren misioak berak −eremu pertsonala, komunitarioa eta herritartasunekoa barne hartzen ditu− bizikidetzarako eremu bat sortu eta bultzatzen du; bertan, elkarrekin bizi dira jesuitak, laikoak, familiak, komunitateak eta egoera ahulean dauden pertsonak, eta justiziarako eta herritarren parte-hartzerako gizarte-konpromiso bat sustatzen dute.

Loiolaetxearen egoitzak (Ategorrieta 34, Donostia) bizi-komunitate baten antzera funtzionatzen du; hauek osatzen dute: modu iraunkorrean etxean bertan bizi diren hiru pertsonak, 46 boluntarioko taldeak eta 10 langilek (zenbait kasutan, departamentu batean baino gehiagotan jarduten dute aldi berean) (1. irudia).



Etengabeko mugimenduan

1. Irudia. Erakundearen organigrama.




Iturria: Loiolaetxearen 2016ko Programa Integrala.

## 2.- LAN-ESPARRUAK

Gure zeregina sei proiekturen inguruan biltzen da: 4 nagusiak eta 2 zeharkakoak (2. irudia). Proiektu horiek guztiak Euskadiko gizarte-zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen Zerbitzuen Karteraren lege-esparruan daude sartuta.

**Diagnosia-orientazioa proiektua.**
Espetxeak, espetxealdiaren ondoren gizarteratzea sustatzeko.
**Egoitza-proiektua.**
Etxea, Ategorrietako Galtzada Zaharrean (Gros).
**Bizitza autonomoa lortzeko egoitza-trantsiziorako proiektua.**
Etxebizitzak, Altza auzoan.
**Laguntza espezializatuko proiektua (ez-egoitzakoa).**
Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea.
**Parte-hartzerako eta boluntariotzarako proiektua.**
Prestakuntza eta jarduerak, herritartasunerako eskola baten estiloan.
**Harrera-proiektua.**
Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea, eta etxebizitzak zenbait auzotan, prozesuak indartzeko.

2. irudia. Programak




Iturria: Loiolaetxearen 2016ko Programa Integrala.



Komuna - Batasuna

Programa guztiak Elkartearen **ildo estrategikoen** arabera garatzen dira (3. irudia), eta, une oro, kalteberatasun-egoeran nahiz gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonak **laguntzea**, **zerbitzatzea** eta pertsona horien bidezko ekintzak edo zioak **defendatzea** da xedea; aipatutako ildo estrategiko horiek, hain zuzen, Loiolaetxearen Programa Integraleko arreta-ereduan daude jasota.

3. irudia. Loiolaetxearen ildo estrategikoak

**AKONPAINAMENDUA**

**Pertsona bakoitzari lagun eginez, eta bere bizitzako nahiz bere gizarteratze-prozesuko protagonistatzat aitortuz.**

**BIZIKIDETZA**

**Elkarrekin bizi gara, gure bizikidetza-ohiturak indartzeko.**

LOIOLA ETXEA JESUITAK

**Komunitatearekiko lotura gure gizarteratze-prozesuen euskarri da.**

**KOMUNITATEAREKIKO LOTURA**

**Gure esperientzia besteekin partekatuz, elkartasuna eta justiziaren aldeko borroka indartzen dira gure lurraldean.**

**JUSTIZIA**

Iturria: Loiolaetxearen 2016ko Programa Integrala.

## 3.- HELBURUAK

Aurrez deskribatu diren sei proiektuak barne hartzen dituen Loiolaetxearen Programa Integralaren helburu nagusia hauxe da:

**Kalteberatasun-egoeran edo gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonen bizi-kalitatea hobetzea, bizi-kalitatea eta eskubideak eta/edo zerbitzuak eskuratzeko prozesua finkatuz eta, une oro, pertsonaren autodeterminazioa sustatuz.**

Hurrengo lerroetan zehaztu dira aurreko puntuan deskribatutako ildo estrategikoen eta horien xedearen araberako helburu espezifikoak:

- 1. HE. Autonomia-prozesuak sustatzea, bultzatzea eta ebaluatzea, laguntza teknikoaren tresna baliatuz.
- 2. HE. Bizi-ohitura inklusiboak sustatzea, bultzatzea eta ebaluatzea, egoitzako bizikidetzaren bitartez.
- 3. HE. Komunitatearekiko lotura-esperientziak sustatzea, bultzatzea eta ebaluatzea berdinen arteko babes-taldeetan edota gizarte-sareko beste talde batzuetan parte hartuz.
- 4. HE. Egoera ikusarazteko eta gizarte-eraldaketarako esperientziak sustatzea, bultzatzea eta ebaluatzea, herritarren parte-hartzearen eta eragin publikoaren bitartez.



Bizitzari elkarrekin aurre egin

## 4.- MISIOA, IKUSPEGIA ETA BALIOAK

**MISIOA**

Gizarteratzea lortzeko esperientzia sozial jesuita izatea –gardena eta parte-hartzekoa–, komunitatearekiko loturan oinarritzen dena, eta parte-hartzaileen autodeterminaziorako bidean pertsona horien akonpainamendua eta garapena bultzatuko dituena. Gure misioa gizartea eraldatzeko elementutzat hartzen dugu, hori baita, gure ustez, gizarte bidezkoagoa eta inklusiboagoa lortzeko egin dezakegun ekarpenik onena.

Egoitza-laguntzako eta laguntza erreferentzialeko programak garatzen ditugu, espetxe-egonaldien osteko esperientziaren esparruan, bai eta parte-hartze soziala eta boluntariotza sustatzeko beste programa batzuk ere. Jesuitek Euskadin eta Espainian duten gizarte-eraginerako sareko kideak gara.

Gizarte-eraldaketa

Komunitatearekiko lotura

Eskubideak eskuratzea

**IKUSPEGIA**

Gipuzkoan baztertuta dauden pertsonen (batez ere, espetxean egon direnen) inklusioaren alde egitea, bai eta haien eskubideak eskuratzearen alde ere, lurraldean jardunbide onak sortzen dituen elkartasun-sare baten bidez.

Baztertuta dauden pertsonen (batez ere, espetxean egon direnen) eskubideak eta inklusioa lortzea sustatzen dituen Gipuzkoako elkartasun-sare bateko kide izatea.
Lan-arlo horretan esku-hartze komunitarioko eredu alternatibo eta iraunkor baten ekarpena egiteagatik aitortza izatea.

**BALIOAK**

Giza senidetasuneko gure eredua sendotzea eta, ahal izanez gero, hobetzea, pertsona guztiak kolektibo bateko kide senti daitezen, errotzeko eta hazteko aukera emango dien kolektibo bateko kide, hain zuzen. Nola? Bizi-komunitatean sartzeko prozesuekin: boluntariotza, proiektuaren hedapena, etab. Kultura- eta hizkuntza-identitatea aitortuta, euskara eta euskal kultura, batez ere. Lagun egiteko prozesuekin: bisitak espetxera, eta etxean hartzeak. Bizi-proiektuekin. Etxe barruko lan-prozesuekin: lan- eta erantzukizun-banaketa, bizikidetza, boluntarioen parte-hartzea, etab.

Espetxean egondako pertsonen edo gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonen gizarteratzea sustatzea, pertsona horien bizitza autonomoa lortzeko prozesuan. Nola? Loiolaetxea Elkartean egon osteko trantsizioan lagun eginez. Trantsizio-etxebizitzak. Harrera- eta bitartekaritza-proiektu alternatiboak sustatuz, Donostiako gizarte-ehuna inplikatuta.

Gaur egungo espetxe-ereduaren alternatibak bultzatzea. Nola? Espetxe-sistemaren bidegabekeriak salatzen dituzten sareetan nahiz eredu alternatiboak proposatzen dituzten sare eta plataformetan parte hartuz.

Beste batzuekin lan egitea, elkartasun-sare bat sustatzeko. Nola? Besteekin zer arlotan lan egin nahi dugun zehaztuta. Akordioak eta aliantzak eratuz, edo sareetan parte hartuz. Eta Loiolaetxea Elkartearen parte-hartzea argituz sare eta plataformetan.

## 5.- ESKU-HARTZE KOMUNITARIOKO EREDUA ETA DIZIPLINARTEKO EREDUA, ETA DAGOKION ESPARRUAREN KUDEAKETA

Loiolaetxea, eredu komunitarioa bultzatzen duena, eratu eta handik 4 urtera sortu eta garatu zen esku-hartze profesionalaren eredua. Beraz, sorrera hartatik gaur egun arte, ibilbide luzea egin da. Zer egiten dugun jaso eta idatzi da, eta arreta-ereduarekin bat egin da; horrez gain, EAEko gizarte-zerbitzuen karteraren parte ere bada. Hala ere, ez du galdu bere jatorrizko funtsa, komunitate bat izatearena, hain zuzen.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko Dekretuaren arabera, 12/2008 Legea da Loiolaetxearen lege-esparrua. *33. artikulua: Ostatu-zerbitzuak / Tutoretzapeko etxebizitza bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzat (1.9.2.).*

Hauek dira Loiolaetxearen esku-hartze komunitarioko ereduaren erronkak:

- Ematea eta jasotzea.
- Aniztasunari eta kulturartekotasunari bide ematea.
- Elkar babestea eta elkarrekin haztea, horizontaltasuna ardaztzat hartuta.
- Bizitza aniztasunetik partekatuz eragitea.
- Partekatzeak dituen alderdi gozoez eta mingotsez gozatzea, eta horietatik ikastea.



Topaketa eta aniztasuna

4. irudia. Esku-hartze komunitarioko eredua.




Iturria: Loiolaetxearen 2016ko Programa Integrala.

5. irudia. Loiolaetxearen kudeaketarako eta esku-hartze profesionalerako ereduaren laburpena.

| ZUZENDARITZA | ELKARTEA | KOORDINAZIOA | EGOITZA ATEGORRIETAN | ETXEBIZITZAK ALTZAN | LAG. ESP. PROGRAMA | HARRERA ABEGI-ETXEA | DIAGNOSIA ETA ORIENTAZIOA ESPETXEETAN |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | HEZKUNTZA-TEKNIKARI ERREFERENTEA | HEZKUNTZA-TEKNIKARI ERREFERENTEA | HEZKUNTZA-TEKNIKARI ERREFERENTEA | HEZKUNTZA-TEKNIKARI ERREFERENTEA | HEZKUNTZA-TEKNIKARIA<br>GIZARTE-TXOSTENA<br>TEKNIKARI TERAPEUTIKOA ETA PSIKOSANITARIOA |
| | | | TEKNIKARIA GIZARTE-TXOSTENA | TEKNIKARIA GIZARTE-TXOSTENA | TEKNIKARIA GIZARTE-TXOSTENA | TEKNIKARIA GIZARTE-TXOSTENA | |
| | | | TEKNIKARI TERAPEUTIKOA ETA PSIKOSANITARIOA | | | | |
| | | | PARTE-HARTZERAKO TEKNIKARIA | | | | |
| | | | TEKNIKARI LAGUNTZAILEA | | | | |

Iturria: Loiolaetxearen 2016ko Programa Integrala.

4. eta 5. irudietan, esku-hartze komunitarioko eredua eta diziplinarteko esku-hartze profesionaleko eredua nola uztartzen diren ikus daiteke. Bi eredu horiek zeharkakoak dira Loiolaetxearen proiektu guztietan, eta bi eredu horien uztartzeak laguntza jasotzen duten pertsonak gizarteratzearen eta komunitate-integrazioaren arloan haztea dakar; horrela, hazkunde pertsonaleko prozesua indartu egiten da.

Era berean, aukera ematen die eredu komunitarioaren parte diren profesionalei eta boluntarioei maila pertsonalean eta humanoan hazteko.

Esperientziaren ikuspegitik, uztartze horren ekarpen garrantzitsutzat adieraz daiteke sekulako lotura sortzen dela laguntza jasotzen duten pertsonen eta horiei laguntzen dieten pertsonen artean; lotura horri esker, horizontaltasunaren plano batean sentitzen eta kokatzen dira, eta horixe da, hain zuzen, Loiolaetxearen helburuaren *magis*a: "bidezko ekintza izatea".

## 6.- PERTSONEN PROFILA. LORTUTAKO EMAITZAK

Loiolaetxearen 21 urteko ibilbidean lagundu edo artatu diren pertsonen profilari dagokionez, dokumentu honetan aurrez aipatu bezala, gizarte-bazterketako egoeran edota egoera horren arriskuan dauden pertsonak dira, kartzelan egondakoak, batez ere.

18 urtetik 64 urtera arteko pertsonak dira, eta behar duten laguntza askotarikoa eta mistoa da maila guztietan: generoa, jatorria, adina, etab.

6. irudia. Azken zazpi urteetako datu orokorrak.

| | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ARTATUTAKO PERTSONAK | 85 | 87 | 60 | 80 | 77 | 76 | 75 |
| EMAKUMEZKOAK | 15 | 21 | 11 | 13 | 9 | 9 | 14 |
| GIZONEZKOAK | 70 | 66 | 49 | 67 | 68 | 65 | 61 |
| JATORRIA | % 60 bertakoak dira, eta gainerako % 40a etorkinak, jatorri desberdinekoak. | | | | | | |
| EMAITZEN IKUSPEGI OROKORRA | Urte hauetan guztietan ikusi ahal izan denez, 3 pertsonatik 2 ez dira kartzelara itzultzen, eta ez dute beren bizi-proiektua aurrera eramatea eragotziko dien beste delituik edo droga-kontsumorik egiten. | | | | | | |

Iturria: geuk egina.

[1] Magis: latineko hitza da, oso ohikoa espiritualtasun ignaziotarrean. "Gehiago" esan nahi du, baina "gehiago zertan?". Bada, Jainkoarekiko harremanarekin edota bizitzan une batean edo bestean hartu behar izaten ditugun erabaki pertsonalekin zerikusia duen orotan. Beraz, "gehiago" hori ez dago kantitatearekin lotuta, kalitatearekin baizik.




2019ko memoriako datuak, ondoko grafikoetan adierazi direnak, modu espezifikoan irakurriz eta deskribatuz, hau ondorioztatu daiteke: Loiolaetxea espetxean dauden bitartean laguntza-sare sozialik ez duten pertsonei, edota laguntza-sare horiek oso egoera prekarioan dituztenei, hurbiltasuna adierazteko sortu zen, eta helburu horrekin jarraitzen du; Gipuzkoa da bere jardun-eremua, eta hedapenez, Euskadiko gainerako lurraldeak.

Migrazio-fenomenoak –erkidegoz kanpokoak eta jatorri nagusia Afrika iparraldean eta Saharaz hegoaldeko Afrikan dutenak, bereziki– norabide-aldaketa ekarri du harrera-arretan, gizarte-zerbitzuen sareko zerbitzuez eta eskubideez baliatu ahal izateko.







Genero-banaketari dagokionez, Loiolaetxean nahiko desorekatua da banaketa hori. Horrez gain, oso kontuan izan behar da Loiolaetxean artatutako pertsonen jatorria, Loiolaetxea espazio plural eta askotarikotzat eraikitzen duen aldetik.




Loiolaetxean dauden pertsonen errealitatea anitza eta plurala da; hain zuzen, errealitate hori agerian uzten duten beste zenbait datuk zerikusi handia dute pertsona bakoitzaren egoera pertsonal edo bizi-ibilbidearekin, bai eta eskuratu nahi diren helburuen

Loiolaetxean dauden pertsona askoren egoera ekonomikoak nahiz gizarteratzea zailtzen duten edota indarkeriazko gizarte-arbuioa eragiten duten zirkunstantzia partikularrek nabarmen baldintzatuko dute pertsona horien bizitza normalizatzeko eta gizarteratzeko prozesua.




Azkenik, Loiolaetxean egondako pertsonen prozesuaren prospektiba egin behar da. Eskura ditugun datuen arabera, eta grafikoan adierazten den moduan, eskuratu nahi diren helburuei dagokienez, joera nagusia da datu egiaztatuak ditugun pertsonen % 99k beren bizi-prozesuak normalizatzeko dinamikari eutsi diola, partzialki edo gogobetetasunez, gizarte-bazterketa edo gizarte-bazterketako arriskua bizi izan ondorengo bi urteetan.









## 7.- ARTATUTAKO EDO LAGUNDUTAKO PERTSONEN GOGOBETETZE-MAILA

2020an egindako azken gogobetetze-inkestaren grafikoko datuen arabera, bai eta lagundutako pertsonen esperientzia orokorraren arabera ere, iritzi orokorra ona da, eta Loiolaetxea beren etxea dela sentitzen dute. Horrek, datu positibo gisa, estualdian jartzen ditu hezkuntza-prozesuen lotura- eta deslotura-prozesuak. Loiolaetxeak bere gain hartzen ditu arrisku-dinamika horiek, betiere pertsona horien prozesuen eta beren bizi-ibilbideen onerako badira.

| ERABILTZAILEEN BALORAZIOA | Emakumeak | Gizonak | |
|---|---|---|---|
| Asebetetze globalaren indizea | 8.9 | 9.3 | 9.1 |
| Instalazioen eta azpiegitura fisikoaren balorazioa | 8.6 | 9.4 | 9.0 |
| Arreta ematen dieten pertsonen profesionaltasuna balorazioa | 9.4 | 9.0 | 9.2 |
| Jasotzen duten tratuaren balorazioa | 9.3 | 9.4 | 9.3 |
| Kexa eta iradokizunen sistemaren balorazioa | 8.3 | 7.5. | 7.9 |
| Beren eskubideen balorazioa: | | | |
| Errespetua eta duintasuna | 9.5 | 9.3 | 9.4 |
| Pribatutasuna eta intimitatea | 8.8 | 8.5 | 8.6 |
| Autodeterminazioa eta autonomia | | | |
| | | | |
| Jasotzen duten informazioa | 9.1 | 8.7 | 8.9 |
| Hautatzeko gaitasuna | 9.0 | 9.0 | 9.0 |
| Errealizazio pertsonala | 8.9 | 9.5 | 9.2 |
| Eskubideak babestea, ezagutzea eta defendatzea | 9.5 | 9.4 | 9.4 |




## 8.- LOIOLAETXEAREN FINANTZAKETA-ITURRIAK

- Jesusen Lagundia. 2000. urtean Loiolaetxea sortu zenetik, Jesusen Lagundiak bere baliabideak jartzen ditu, hau da, egoitzak, giza kapitala eta baliabide material eta ekonomikoen hainbat formula; horiei esker, Loiolaetxearen iraunkortasuna sustatzen du.

- Gipuzkoako Foru Aldundiarekin egindako hitzarmena; lehenbizikoa 2006ko uztailaren 12an sinatu zen Donostian. Gaur egun, hitzarmen horri eusten dio Indarkeria Matxistaren Emakume Biktima Babesteko eta Gizarteratzeko Zerbitzuaren bitartez. Urtebeteko indarraldia du hitzarmenak, eta, hasieratik gaur arte, urtero berritu izan da.

- Eusko Jaurlaritza, Euskadin esku-hartze sozialaren esparruan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzen bitartez. Diru-laguntza horiek urterokoak dira. Hain zuzen, Eusko Jaurlaritzak egun dituen hiru diru-laguntza lerroetatik, bi lerro hauen bitartez finantzatzen dira proiektuak:

    - I. Esku-hartze sozialaren esparruan ekintza boluntarioa eta elkarteen parte-hartzea indartzeko jarduerak.
    - II. Esku-hartze sozialerako jarduerak pertsonekin, familiekin, taldeekin eta komunitateekin.

- Tokiko proiektu zehatzak sustatzeko diru-laguntza puntualak.

- Finantzaketa-iturri horiek 2020ko memoriako sarreren eta gastuen kontu analitikoetan daude deskribatuta, 7. eta 8. irudietan, zehazki.

**SARREREN KONTU ANALITIKOA – 2020KO EKITALDIA**

| | | |
|---|---|---|
| **Diru sarreren Kontua / Cuenta de Ingresos** | | |
| **Urteko zenbatekoa / Importe anual** | | |
| **Erabiltzaileak eta familiak / Personas usuarias y familias** | | **0,00** |
| **Erakundeak / Instituciones** | | **368.868,49** |
| GFA - Gizarte Politiketako Dep. / DFG - Dep. de Políticas Sociales | | 355.295,79 |
| Zerbitzuak ematea / Prestación de servicios | | 312.060,79 |
| Ustiapeneko diru laguntzak / Subvenciones de explotación | | 43.235,00 |
| Kapitaleko diru laguntzak / Subvenciones de capital | | 0,00 |
| GFA - Beste departamentuak / DFG - Otros Departamentos | | 0,00 |
| Eusko Jaurlaritza - Osakidetza / Gobierno Vasco - Sanidad | | 0,00 |
| EJ Osabidezko Hezk. Partz. / GV - Consorcio de Educación Compensatoria | | 0,00 |
| EJ - Justizia, Lan eta Giz.Seg. / GV - Justicia, Trabajo y SS | | 0,00 |
| EJ - Etxebizitzak eta Gizarte Gaiak / GV - Vivienda y Asuntos Sociales | | 0,00 |
| Eusko Jaurlaritza - bestelakoak / Gobierno Vasco - Otros | | 13.572,70 |
| Udalak / Ayuntamientos | | 0,00 |
| Beste erakundeak / Otras instituciones | | 0,00 |
| **Bestelako diru sarrerak / Otros ingresos** | | **122.710,00** |
| Donatiboak / Donativos | | 0,00 |
| Bestelako diru sarrerak / Otros ingresos (especificar): | | 0,00 |
| APORTACION COMUNIDAD JESUITAS | | 18.000,00 |
| APORTACION JESUITAS | | 84.223,00 |
| DONATIVOS | | 13.497,00 |
| DONACIONES Y LEGADOS DE CAPITAL | | 6.990,00 |
| **Intereses y otros ing. fin. / Int. eta bestelako diru sarrera finantzarioak** | | **127,23** |
| **Guztira / Total** | | **491.705,72** |
| Importes | Con IVA | |
| | Sin IVA | X |

7. irudia. 2020ko sarrerak. Iturria: Loiolaetxearen 2020ko memoria

Zenbaki horiekin, dokumentu honetan jaso den guztia balioan jar dezakegu.

Zer egiten dugun, nola egiten dugun eta nondik egiten dugun berrikusteko aukera ematen digute.

7. eta 8. irudietan, Loiolaetxearen azken memoriako sarrerak eta gastuak jaso dira, eta, hain zuzen, bertan egiten den jardueraren isla dira, nolabait. Horrez gain, urteko aurrekontua nola banatzen den erakusten dute, bai eta zer aitortzen den une oro garrantzitsutzat, hots, PERTSONAK, bizitzari aurre egiten diotenak eta, ahultasun-egoeretan, norbaitek maitasunez begiratzea behar dutenak, beren bizitzako prozesuak bideratzeko beste aukera bat dutela senti dezaten.

Hain zuzen, pertsona horiengatik eta horientzat daude pentsatuta aurrekontu hauek, hemen aurkeztutako sarreren eta gastuen kontu analitikoetan garatzen direnak.

**GASTUEN KONTU ANALITIKOA – 2020KO EKITALDIA**

| | |
|---|---|
| **Zuzeneko gastuak / Gastos directos** | **56.670,85** |
| Botikak / Fármacos (únicamente el coste soportado por la entidad) | 2.692,24 |
| Osasun-materiala / Material sanitario (únicamente el coste soportado por la entidad) | 0,00 |
| Elikadura / Alimentación | 48.571,87 |
| Jangaiak eta edariak / Comestibles y bebidas | 34.714,96 |
| Sukaldeko pertsonal propioa / Personal propio de cocina | 13.856,91 |
| Sukaldeko pertsonal azpikontratatua / Personal subcontratado de cocina | 0,00 |
| Catering zerbitzua / Servicio de Catering | 0,00 |
| Ikuztegia / Lavandería | 0,00 |
| Ikuztegiko pertsonal propioa / Personal propio de lavandería | 0,00 |
| Ikuztegiko pertsonal azpikontratatua / Personal subcontratado de lavandería | 0,00 |
| Ikuztegi gaiak / Productos de lavandería | 0,00 |
| Kanpoko ikuztegia / Lavandería exterior | 0,00 |
| Garraioa / Transporte | 5.406,74 |
| Garraio pertsonal propioa / Personal propio de transporte | 0,00 |
| Garraio pertsonal azpikontratatua / Personal subcontratado de transporte | 0,00 |
| Erregaiak, konponketak, aseguruak... / Combustible, reparaciones, seguros... | 5.406,74 |
| Garraio azpikontrata Udalak subkontratatua / Subcontrata de transporte subcontratado por el Ayuntamiento | 0,00 |
| Garraio azpikontrata kudeaketa enpresak subkontratatua / Subcontrata de transporte subcontratado por la empresa gestora | 0,00 |
| **Pertsonal gastuak / Gastos de Personal** | **318.616,38** |
| Kudeaketako pertsonal propioa / Personal propio de Gestión | 0,00 |
| Kudeaketako pertsonal azpikontratatua / Personal subcontratado de Gestión | 0,00 |
| Asistentziako Pertsonala propioa / Personal Asistencial Propio | 318.616,38 |
| Asistentziako Pertsonal azpikontratatua / Personal Asistencial Subcontratado | 0,00 |
| Ez asistentziazko Pertsonala propioa / Personal No asistencial Propio | 0,00 |
| Ez asistentziazko Pertsonal azpikontratatua / Personal No asistencial Subcontratado | 0,00 |
| **Zeharkako gastuak / Gastos indirectos** | **99.476,52** |
| Garbiketa pertsonal propioa / Personal propio de limpieza | 0,00 |
| Garbiketa pertsonal azpikontratatua / Personal subcontratado de limpieza | 0,00 |
| Garbiketa gaiak / Productos de limpieza | 1.062,00 |
| Hornizioak / Suministros | 13.084,43 |
| Alokairuak / Arrendamientos | 7.218,62 |
| Konponketak eta mantentze-lanak / Reparaciones y mantenimiento | 14.503,76 |
| Aseguru primak / Primas de seguros | 794,08 |
| Komunikazioak / Comunicaciones | 8.535,65 |
| Bulego materiala / Material de oficina | 4.147,17 |
| Finantza gastuak / Gastos financieros | 864,45 |
| Bestelako gastuak (amortizazioak salbu) / Otros gastos (salvo amortizaciones) | 49.266,36 |
| **GUZTIRA / TOTAL** | **474.763,75** |
| Amortizazioetarako zuzkidurak / Dotaciones para amortizaciones | 9.538,60 |
| Ekitaldiko emaitzari esleitutako kapital diru-laguntzak / Subvenciones de capital traspasadas al resultado del ejercicio | 6.990,00 |

9. irudia. 2020ko gastuen memoria.

Amaierako hausnarketa modura, zenbakiak berak eta nola banatzen diren ikusirik, esan daiteke guztion ongiaren ikuspegitik nahiko hurbil gaudela.

Arlo sozialean, altxortegia ez da oso oparoa izaten, eta muga horien ondorioz, doikuntzak egin eta erabaki konplexuak hartu behar izaten ditugu. Beraz, lasaitu egiten du ikusteak prozesu pertsonalek eta komunitarioek aurrera egiten dutela eta zenbaki horiek bizitza bihurtzen direla

Bizitza… norbanakoen bizi-prozesuak bideratzeko aukera ematen duena, eta, horrela, komunitate, herritar eta gizarte moduan indartzen gaituena.

*Bizitzari aurre egiten eta elkartasuna ehuntzen jarraitzen dugu.*


ESKERRIK
ASKO